


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Higgsen bosoiak, masa eta energiaren arteko mugetatik hurbilago

IAZ, CERN ERAKUNDEAK iragarri zuen argiaren abiadura baino azkarrago higitzen ziren neutrinoak aurkitu zituela, baina gerora frogatu zen ustezko aurkikuntzaren jatorria gaizki egindako neurketa besterik ez zela. Porrot haren ostean etorri zaigu Higgsen bosoiak izan daitekeen partikularen aurkikuntza. Horren bidez unibertsoa hobeto ulertzeko aukera izango dugu; besteak beste, materiaren sorruntza ulertze bidean jarriko gaitu



Higgsen bosoiaren ikerketak. Hori bai, neutrinoen porrota eta gero CERNez askoz komunikazio estrategia zuzurrerago erabili du orainean.

Aurkitutakoa Peter Higgsek eta beste bost zientzialarik 60ko hamarkadan aurreikusitako bosoiak den ziurtatzeko hilabete batzuk igaro beharko dira, CERNez arabera. Badirudi, nolana, ziurtatu dezakegula partikula bat uhin izatetik masadun partikula izatera igarotzen deneko gertaera ezagutzetik hurbilago gaudela. Zenbat hurbilago? Auskalo!

Errealitatea hobeto ulertzeko aukera emateaz gain, Higgsen bosoiak atzemateak bestelako ondorio "lurtarragoak" izan ditzake. Esaterako, ia segurua da CERNez diru gehiago lortuko duela ikerketekin aurrera jarraitzeko. Higgsek proposatutako ereduak zentzuzkoa dela ere esan daiteke honezkerok, baina ikerketak eman dezakeenaz hitz egiteko goiz da. Hamarkadetako kontua izango da.

"Jaungoikoaren partikula" ere esaten zaio Higgsen bosoiari, zientzialari askok gaitzesten duten goitizenaren izanagatik. Hainbatek esan du energia materia bihurtzeko prozesua ulertzeak Jainkoaren izaera ulertzea ekar dezakeela. Ez dut uste horrela izango denik, eta are gutxiago epe laburrean. Batetik, orain abiatuko den ikerketa-bideak urte asko beharko dituelako emaitzak izateko; bestetik, nanoan ez ezik ez al da makroan ere begiratu beharko? Hau da, masa-energia binomioaren portaera ulertzeko ez al da unibertsoatik haratago dagoena ezagutu beharko? Kontuan hartu behar da bigarren arlo horretan ikerketaren hastapenetan baino ez gaudela. Arazoaren alderdi erlijiosoari dagokionez, aurkikuntza bakoitzak galdera berri bat dakarrenez, elizak oso lasai daudela iruditzen zait.



Odola garraiatzeko zain eta arteria artifizialak

Cornell Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek odola garraiatzeko tutueriak diseinatu ditu, gizakiaren zain-arteriak bailiran. Sistema konplexu horren abantaila birsorkuntza da, hau da, behin zain edo arteria bat sortuta, hark beste hori sekundario batzuk sortzeko ahalmena du.

ttiki.com/40780 (Gaztelaniaz)

Makinetako hondar beroa birziklatu nahian

Yue Wu estatubatuar ingeniari kimikoak beira-zuntzekin sortutako materialari esker, motoretan sortzen den beroaren zati bat xurgatu eta berrerabil daiteke. Hala, hozte-sistematan erabiltzen diren gailuak ez lirakte beharrezkoak izango, eta bide batez karbono dioxido gutxiago botako litzateke atmosferara.

ttiki.com/40781 (Gaztelaniaz)

Metalezko piezak sortzeko moldeen ekoizpena hobetzen

Ordenagailuz Lagunduriko Diseinuan (CAD) oinarrituz, %25eko murrizketa lor daiteke kostuetan, eta diseinu akastunak %90 gutxiago lirakte.

ttiki.com/40782 (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16